


6. GAIA:

PRACTICUMA KUDEATZEKO SISTEMA ETA HAREN ERAGILEAK

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

Practicuma antolatu eta kudeatzeko, ezinbestekoa da hainbat agentek parte hartzea eta laguntzea. Besteak beste, Dekanotza taldeko kide den Praktikako Programaren Arduraduna (PPA), Ikastegiko Praktiken Batzordearen buru dena. Batzorde horretan partaide dira, PPAz gain, practicumeko irakasgaien arduradun diren irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren (AZP) ordezkari bat eta ikasleen bi ordezkari. Gainera, practicumaren kudeaketan eta garapenean parte hartzen dute, halaber, AZPeko beste langile batzuek, praktikak egiten dituzten ikasleek, instruktoreek, irakasle tutoreek eta kanpoko erakunde laguntzaileek (ikus 1. irudia).



1. irudia. *Practicumaren kudeaketan eta garapenean parte hartzen duten agenteak.*

Practicumaren kudeaketan hainbat zeregin egiten dira fase desberdinetan (1); zeregin batzuk aurreko ikasturtean hasten dira, eta beste batzuk practicum egiten den ikasturtean gauzatzen dira. Aurreko ikasturtean, oro har, honako zeregin hauek egin behar izaten dira:

- Ebaluazioko eta tutoretza-prozesuko tresnak balioestea, hala badagokio hobekuntzak egiteko.
- Fakultate/Ataleko Practicumaren Arautegia, irakaskuntza gidak, practicumaren egutegiak eta ordutegiak onartzea.
- Plaza kopurua aztertzea eta erakunde laguntzaileekiko lankidetzaren hitzarmenak eguneratzea eta/edo berritzea.

- Behar berezien egoerak baloratzea (kontziliazioa, practicumean laguntza gehiago behar izatea...).
- Ikasleen prestakuntza ibilbideak berrikustea.
- Praktiken eskaintza aplikazio informatikoan grabatzea (matrikula baino lehen).
- Praktiken esleipenari buruzko informazioa ikasleei ematea (ibilbidea eta esleitzeko irizpideak, besteak beste).

Practicuma egiten den ikasturtean, betiere irakasgaia hasi baino lehen, besteak beste, honako ekintza hauek egingo dira:

- Ikasle bakoitzari irakasle tutorea eta instruktorea esleitzea.
- Informazioa bidaltzea arduradunei eta erakunde laguntzaileetako instruktoreei.
- Agente guztiei beren eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoa duten prestakuntza ematea.

1. taulan, practicuma kudeatzeko eta garatzeko egin behar diren zereginak zehaztu dira, zeregin bakoitzaren arduradunak eta noiz egiten diren adierazita.

1. taula. Practicuma kudeatzeko eta garatzeko egin beharreko zereginak.

Zeregina	Arduraduna	Epealdia
Erakunde laguntzaileekin hitzarmenak sina daitezen sustatzea eta proposatzea.	PPA	Aurreko ikasturtea eta ikasturte osoan
Hitzarmena duten Zentroei informazioa (edukiera...) eta instruktoreen zerrenda eskatzea.	PPA	Aurreko ikasturtea
Ikasle, instruktore eta irakasle tutoreek betetako gogobetetze inkestaren emaitzak aztertzea.	PPA + Praktiken Batzordea	Aurreko ikasturtea
Ebaluazio tresnak eta tutoretzetako protokoloa berrikustea eta eguneratzea.	PPA + Praktiken Batzordea	Aurreko ikasturtea
Istripuen protokoloa berrikustea eta eguneratzea.	PPA + Praktiken Batzordea	Aurreko ikasturtea
Praktikak hautatzeko eta esleitzeko prozedura berrikustea.	PPA + Praktiken Batzordea	Aurreko ikasturtea
Practicumeko irakasgaien kronograma (egutegia, ordutegia...) proposatzea.	PPA + Praktiken Batzordea	Aurreko ikasturtea
Practicumeko irakasgaien Irakaskuntza Gidak proposatzea.	PPA + Praktiken Batzordea	Aurreko ikasturtea
Ikastegiko Praktiken Araudia berrikustea eta eguneratzea.	PPA + Praktiken Batzordea	Aurreko ikasturtea
Practicumeko irakasgaien kronograma (egutegia, ordutegia...) onartzea.	Fakultateko/Ataleko Batzarra	Aurreko ikasturtea
Practicumeko irakasgaien Irakaskuntza Gidak onartzea.	Fakultateko/Ataleko Batzarra	Aurreko ikasturtea
Ikastegiko Praktiken Araudia onartzea.	Fakultateko/Ataleko Batzarra	Aurreko ikasturtea
Instruktoreei <i>venia docendi</i> ematea onartzea.	Fakultateko/Ataleko Batzarra	Ikasturte osoan
Kanpoko praktikak egiteko ikasleek behar duten informazioa (plazak arlo bakoitzeko, automatrikula egiteko aplikazio informatikoaren gidaliburua, ibilbideak...) berrikustea eta eguneratzea.	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Matrikula baino lehen (ekaina)
Practicumeko plazak aukeratzeko garaian kontuan izan behar dituzten alderdiak zeintzuk diren jakinaraztea ikasleei (2., 3. eta 4. mailak).	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Matrikula baino lehen (ekaina)
Praktiken eskaintza aplikazio informatikoan grabatzea.	AZPko langileak	Matrikula baino lehen (ekaina)

... jarraitzen du 1. taula. Practicuma kudeatzeko eta garatzeko egin beharreko zereginak.

Egoera bereziak (laguntza gehiago behar izatea...) eta ikasleek egindako eskaerak (kontziliazioa...) aztertzea, eta erabakia finkatutako irizpideen arabera hartzea.	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Matrikula baino lehen eta ikasturte osoan
Practicumeko irakasgaietan matrikulatzea (2., 3. eta 4. mailak)	Ikasleak	Matrikula egunak (uztaila)
2., 3. eta 4. mailako ikasleek automatrikulan plazak behar bezala hautatu dituztela egiaztatzea, prestakuntza ibilbidea kontuan izanik; ez bada hala, egin beharreko aldaketak egitea.	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Matrikulazioaren ondoren
Matrikulatutako ikasle kopuruari buruzko datuak ereduazko dokumentuan sartzea (guztira tutorizatu beharreko kredituen kopurua eta Praktiken Batzordean parte hartzen duten irakasleei egotz dakizkiekeen kredituen kopurua zeintzuk diren jakiteko).	AZPko langileak	Aurreko ikasturtea (uztaila)
Ikasleei irakasle tutoreak esleitzeko irizpideak erabakitzea.	PPA + Praktiken Batzordea	Aurreko ikasturtea (uztaila)
Irakasle tutoreen zerrenda eskatzea Erizaintza II Sailari.	PPA	Aurreko ikasturtea (uztaila)
Plaza esleituta duten 2., 3. eta 4. mailako ikasleei irakasle tutorea esleitzea.	PPA + Praktiken Batzordea	Aurreko ikasturtea (uztaila)
2., 3. eta 4. mailako ikasleei irakasle tutoreak eta instruktoreak esleitzea practicum aplikazioan.	AZPko langileak	Aurreko ikasturtea (uztaila)
Dokumentazioa prestatzea eta bidaltzea erakunde laguntzaileetako arduradunei, instruktoreei eta irakasle tutoreei (edo non lortu dezaketen jakinaraztea).	AZPko langileak	Practicuma hasi baino 3 aste lehenago
Praktiken Batzordeko kide diren irakasleei dagozkien irakaskuntza kredituak aplikazioan grabatzea.	AZPko langileak	Aurreko ikasturtea (uztaila)
Practicumeko irakasgai bakoitzaren Egela plataforma kudeatzea.	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Practicuma hasi baino 20 egun lehenago

... jarraitzen du 1. taula. Practicuma kudeatzeko eta garatzeko egin beharreko zereginak.

1. mailako ikasleei practicumaren esleipenari buruzko informazioa ematea.	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Iraila
Praktikak egiteko tokia aukeratzea (1. mailako ikasleak)	Ikasleak	Iraila
Practicumeko plaza esleitzea 1. mailako ikasleei.	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Iraila
Irakasle tutoreak esleitzea 1. mailako ikasleei.	Praktiken Batzordea	Iraila
1. mailako ikasleei irakasle tutoreak eta instruktoreak esleitzea practicum aplikazioan.	AZPko langileak	Iraila
Zentro laguntzaileetako arduradunei informazioa ematea (egutegia, helburuak, ebaluazio sistema, tutoretza prozesua...) ikasturte bakoitza hasi baino lehen, eta bilera baterako deialdia bidaltzea.	PPA	Iraileko lehen egunetan
Ikasleei eman beharreko informazioa/prestakuntza prestatzea, eta prestakuntza hori ematea.	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Praktiken zikloa hasi aurretik
Prestakuntza saioak antolatzea instruktoreentzat eta irakasle tutoreentzat.	Praktiken Batzordea	Ikasturte osoan
Zentroak antolatutako informazio saioetara joatea.	Irakasle tutorea	Ikasturte osoan
Zentroak antolatutako prestakuntza saioetara joatea.	Irakasle tutorea	Ikasturte osoan
Ikasleen identifikazioarekin lotutako alderdiak kudeatzea.	AZPko langileak	Praktiken zikloa hasi aurretik
Practicumeko irakasgaiaren arduradunak deitutako bileretan parte hartzea.	Ikasleak	Praktiken zikloa hasi aurretik
Armairuko giltza ematea ikasleei, dagokionean.	AZPko langileak	Praktiken zikloa hasi aurretik
Armairuko giltza jasotzea, dagokionean.	Ikasleak	Praktiken zikloa hasi aurretik

... jarraitzen du 1. taula. Practicuma kudeatzeko eta garatzeko egin beharreko zereginak.

Ikasleen harrerarako protokoloa eskatzea erakunde laguntzaileetako arduradunei.	PPA	Praktiken zikloa hasi aurretik
Praktiketako 1. egunean harrera egiteko protokoloa prestatzea, eta ikasleei bidaltzea.	AZPko langileak	Praktiken zikloa hasi aurretik
Praktiketako ikasleek zentro laguntzailean egin beharreko txandak antolatzea.	Instruktorea	Praktiken zikloa hasi aurretik
Ikasleei harrera egitea praktikak egingo dituzten zentroan.	Instruktorea	Praktiken zikloaren hasieran
Proposatutako txandak ikasleen prestakuntzarako egokiak direla zaintzea, eta egin beharreko moldaketak egitea.	Instruktorea	Praktiken ziklo osoan
Practicumeko zereginak egitea, eta tutoretza protokoloan ezarritakoa betetzea.	Ikasleak	Praktiken ziklo osoan
Tutoretza protokoloan ezarritakoa betetzea.	Irakasle tutorea + Instruktorea	Praktiken ziklo osoan
Irakasle tutoreei eta instruktoreei laguntza ematea behar dutenean (ikasleek zailtasunak dituztenean, desgaitasun egoeretan...).	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Ikasturte osoan
Ikasleen ebaluazioa berrikustea eta irakasgaiaren aktan kalifikazioa jartzea.	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Praktiken zikloa amaitzean
Ikasleen dokumentazioa artxibatzea, hala badagokio.	AZPko langileak	Praktiken zikloa amaitzean
Irakasgaiaren txostena egitea, ezarritako ereduari jarraikiz.	Practicumeko irakasgaien Irakasle Arduraduna	Practicuma bukatzean
Praktikei dagozkien gogobetetze inkestak betetzea.	Ikasleak + Instruktoreak + Irakasle tutoreak	Practicumaren ziklo bakoitza bukatzean
Planteatu diren hobetzeko proposamenak eta kekek baloratzea eta horiei erantzutea.	Praktiken Batzordea	Ikasturte osoan
Erakunde laguntzaileetako arduradunekin etengabe harremanetan egotea.	PPA	Ikasturte osoan

UPV/EHUko Kalitate Sistema betetzea.	PPA	Ikasturte osoan
Eskerrak emateko gutunak bidaltzea instruktoreei, baita dagokien <i>venia docendi</i> ziurtagiria ere.	PPA	Ikasturtea bukatzean

BIBLIOGRAFIA

1. Uranga Iturriotz MJ, Gil Molina P, Alberdi Erice M, Barandiaran Lasa M, Eizmendi Garate I, Elordi Güenaga U, et al. Diseño del Practicum del Grado en Enfermería. Practicumaren diseinua Erizaintzako Graduan. [Internet]. 2022. [kontsulta, 2022/04/01]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/56179>